

Ibaitik



Gaur igandea da eta eguraldi ederra egiten du. Gontzal eta bere familia gauzak prestatzen ari dira, egun bat pasatzera joateko. Gaur, kotxea etxean utzi dute eta bizikletaz joango dira.

Gauza guztiak prestatu ondoren, martxan jarri dira.

—Bagoaz bide gorritik? —esaten du Josunek.

—Bai, hobeto —dio aitak.

Bidea luzea da eta gure lagunak oso nekatuta daude.

Gontzal ibaira ailegatu eta zuhaitz baten azpian etzan da. Aita eta ama bazkaria prestatzen ari dira. Josune, bitartean, txalupa puzten ari da, ibaian ibiltzeko.

—Gontzal, txalupaz ibiliko gara. Bazatoz gurekin? —galdetzen dio Josunek.

3. Mailako 10. ikasgaia

—Bai, bai... —erantzuten du Gontzalek. Baina Gontzal lur jota dago eta lotan gelditu da. Ametsetan dabil. Pirata baten txalupaz dabil. Aita, ama eta Josune ere txalupan daude.

—Zer pasatzen da hemen? Kontuz! —dio Gontzalek.

Bapatean, marrazo ikaragarri bat agertu da itsasoan eta Gontzal burruka bizian dago marrazoarekin.

Baina ametsa bukatu da eta...

—Gontzal —esaten dio amak.

—Eeez! Ni ez noa txalupara. Beldur naiz! —dio Gontzalek.



IBAITIK

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Zertan ari dira Gontzal eta bere familia?

.....

2.- Zerez joango dira ibaira?

.....

3.- Nolakoa da bidea?

.....

4.- Nora ailegatu dira Gontzal eta bere familia?

.....

5.- Non etzan da Gontzal?

.....

6.- Zertan ari da Josune?

.....

7.- Zerez ibiliko da Josune ibaian?

.....

8.- Nola gelditu da Gontzal?

.....

9.-Zerez dabil ametsetan Gontzal?

.....

10.-Norekin dago burruka bizian Gontzal?

.....

Ibaitik (Hiztegia)

Bide gorria	Irteera
Txalupa	Helmuga
Zerua	Oraindik
Airea	Orain
Hegazkina	Berriz
Globoa	Berriro
Taxia	Grisa
Autobusa	Gaztea
Itsasontzia	Gora
Ordutegia	Behera
Eliza	Eskuinetara
Zinema	Ezkerretara
Udaletxea	Pasatu
Ospitalea	Irten
Baserria	Zaindu
Agurea	Beldur izan
Jokalaria	Bota
Espaloia